



## ANAI LUIS BERASATEGI MENDIZABAL

Olaberria (1933.11.10) – Irún (2021.04.23)

Hitzaren liturgiako testuak:

1 Ko 2, 1-10 / Sal 118, 99-100. 101-102. 103-104 / Mt 5, 13-16

“Era berean, zuen argiak denen aurrean egin behar du argi,  
zuen egintza onak ikusiz,  
zeruko zuen Aita gorets dezaten.”

(Mateo 5, 16)

Gure Anai Luisek Pazko-aldian utzi gaitu, Kristo Jesusengan Bizitza berri batean sartu garela ospatzen dugun liturgi-aldi honetan. Jesus berpiztuaren hitzok oihartzuna izan dezatela gure baitan: *Ez izan beldurrik!* Naturak berak ere, gogora ekartzen digu udaberrian bizitzak heriotzak baino gehiago dezakeela; ospa dezagun gure egoera zaharra Kristorengan hil dela, bizitza berrirako askatuak izan garenez.

Paulok esan digun bezala, Jainkoaren misterioa ez da munduko jakinduriaren bidez agertzen, ahulezian baizik, ezkutuan; hor ezkututzen da Jainkoaren jakinduria, Espirituak agertzen diguna, Jainkoak prestatu dituen bideetatik Hura maite dutenak eramanez.

Zalantzarik gabe, Jainkoaren Hitzaren eguneroko entzute arretatsuak, Jainkoaren promesenganako konfiantzak eta haren aginduekiko leialtasunak argitu du gure Anaiaren bizitzaren ibilbidea, Salmoak iradoki digun bezala. Fedea lanpara izan du, nola topaketan hala bakardadean, bai alaitasunean baita tristuran ere, lanean festan bezala. Fedea "gatza" izan du, bere bizitzari benetako zaporea eman diona, eta "argia", bere zereginetan gidatu duena; eta fede horri esker, Anai Luis "gatza eta argia" izan dugu bere egintzen bitartez, batez ere, azken unera arte.

Jesusek bere jarraitzaileengandik ez du espero euren interesetan, prestigioan edo boterean pentsatzen bizi daitezen; lurrak behar duen "gatza" izan behar dute eta munduak behar duen "argia". Eta Luisek, bere bizitza ematean eta emate horretan gatzaren antzera deseginez, beste askok bizitza goza zezaten, bere benetako zentzua eta balioak barneratuz; Luisek, zerbitzuan dena eman du, eta salletar izarraren argia distiratsu mantentzen lagundu die euren bizitzan hainbat eta hainbati, eta horrela itxaropenez aurrera egiten lagundu die.

Gure Anaiarengan, baloratzen eta eskertzen dugu egunerokotasunean errepikatutako xumetasun aparta, bere izate osoa besteen zerbitzuan jarri izana, titulu handien beharrik ez duen jakinduria sakon hori, une honetan diskurtso handien beharrik ez duena.

Anaion Araudiak (40.1 eta 40.2) honako hau esaten digu: *“Zoriontasunen espirituan, diren eta daukaten guztia partekatze dohaintzat hartzen dute Anaiek. Beren lanean doakotasun-espirtuaz aritzen dira... Asoziazio-espirtuan, bakoitza pertsonalki elkarren arteko ondasunen erantzule sentitzen da... Anaia bakoitzak askatasunez jartzen ditu bere talentu eta gaitasunak besteen zerbitzura”*. Luis, Jesusen jarraitzaile zintzo, salletar jator izanik, gai izan da

zoriontasunen espiritua bizitzeko eta espiritu horretatik bizitza eraldatzeko, eta bere argiak askoren artean argi egin du, eta bere egintza onak ikusiz Jainkoa goratu ahal izan dute.

Gure Anaia Aranguren Txiki baserrian jaio zen, Olaberrian, 1932ko azaroaren 10ean. Bere gurasoek, Jose eta Bernardinak 9 seme-alaba izan zituzten. Beasaingo salletar Anaien Loinazko san Martin Ikastetxean ibili zen. 14 urte betetzear zenean etorri zen etxe honetara Anaia izateko asmoz, seguruenik Anai Nikolas Zufiriak animatuta. Zazpi urte beranduago bide bera hartuko zuen hain maite izan eta gogoan dugun Nikolasek, zalantzarik gabe, Luis bere anaia zaharragoaren etsenplu eta lekukotzaren eraginez.

Lusek bere bizitzako momentu garrantzitsuenak Salle Enearekin loturik bizi izan ditu: hemen egin zuen bere hasierako formazioa osoa, hemen bere lehen sagarapen erlijiosoa eta betirako botoak, 1957. urtean. Bere erlijioso-bizitza ia osoa Salle Enean bizi izan du, San Asension egindako denboraldi labur bat salbu (3 urte), Donostiako La Sallen egindakoa (5 urte) eta Pozuelo de Alarcónen CEL egiten pasatako hilabeteak. Eta hemen, Bere Etxean, Gure Etxean, itzuli dio bere bizitza Jaunari.

Luisen bizitza, maitasunez gogoratzen ditugun beste hainbat Anaien bizitzen antzera, neurri handi batean Formazio Etxeak, Elkartek eta Ikastetxeak ongi funtziona zezaten ezinbestekoak ziren lanei eskainia izan zen: laborantza, konponketak eta mantentze-lanak, merkantziak garraiatzea, beti prest zegoen txofer-gidaria izatea... beharrezkoa litzatekeen edozer egiteko beti prest. Salle-Eneara iristean, topo egiten zenuen lehena izaten zen, jarduera batean nahiz bestean zebilela. Hori izan da bere misio apostolikoa, beti gogoz, ahaleginez eta prestutasunez bizi izan zuena, besteen zerbitzurako dedikazio eskuzabalean, bereziki formazioan ziren salletar bokazioen zerbitzuan.

Ospitalera eraman zutenetik, duela hilabete pasatxo, bagenekien bere egoera delikatua eta kritikoa zela. Orain astebete, bere Etxe honetara itzuli eta beretarrekin berriz topo egin, eta pozik zenean, sufrimendurik gabe, bere argia itzali egin da Aitarenean distira egiteko.

Eskerrik asko, bereziki, gure artean Luisek bizi izan dituen azken une hauetan, maitasunez eta dedikazioz artatu eta lagundu diozuen guztioi.

Gure Anaia betidanik apuntatu zen bizitza zerbitzu, entrega eta dohaintza bilakatzen dutenen zerrendan; ez lehentasunezko postuen bila, baizik eta beren Anaiei gero eta gehiago eta hobeto zerbitzatzeko tokien bila. Horregatik, orain, gure Luis Bizi betera igarotzea ospatzen dugunean, Jainkoaren jakinduria ezkutu eta misteriotsua ospatzen ari gara, xumea eta ahula dena garaile ateratzen duen jakinduria. Gure Anaiak eskuzabaltasunez jarri ditu gure salletar misioaren zerbitzura bere denbora, bere talentuak eta bere indarrak, baita bere sufrimenduak ere, Jainkoaren egintzan aktiboki parte hartuz.

Anai Luis,  
zorioneko Jaunagan hil zaren hori,  
har ezazu zure nekeen atsedena,  
zure egintzak zeurekin daramatzazu-eta.

Milesker, Luis, eta Egun Handira arte!

## BERPIZTUERAREN GIZAKI BERRIA

Berpiztueraren gizaki berriak  
ez du zerbitzatua izan nahi,  
**zerbitzatu baizik.**

Berpiztueraren gizaki berriak  
ez du pilatu nahi,  
**partekatu baizik.**

Berpiztueraren gizaki berriak  
ez du gailendu nahi,  
**batu baizik.**

Berpiztueraren gizaki berria  
ez da berarentzat bizi,  
**besteentzat baizik.**

Berpiztueraren gizaki berriak  
ez du liskarrik ereiten,  
**bakea baizik.**

Berpiztueraren gizaki berriak  
ez du hondamendirik iragartzen,  
**aitzitik, utopian sinesten du.**

Berpiztueraren gizaki berria  
ez da bere buruaz fio,  
**Jainkoaz baizik.**

